

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abuztuaren 6a

Egunkaria


Gehigarri honetan

Bera • Iparraldetik eta Frantziatik etortzen diren autoen kalteak eragotzi nahi dira.

Cesareo Soule • «Agota izan edo ez, argi dago haien ondare kulturala jaso dudala».

Zezenen aurrean jartzeko irrikitan

Erribera aldean, Rada herri txikian, gazte askori erakusten zaie zezen aurrean mugitzen, 'El Cortijo' izeneko etxalde batean. Torero izatea dute helburu gazte horiek. Nafarroako Zezen Eskola 1984an hasi zen martxan. Manolo De los Reyesek zuzentzen du, eta fruituak ematen jarraitzen du; uztailean, Santiagoko Ferian, Francisco Marco Lizarrako gazteak alternatiba hartu zuen, Santanderren.



Altsasu • Erraldoiek kalteak izan dituzte

Bikoterik berriena konponduko dute lehenik: Sorgina eta Momotxorroa

Altsasuko Erraldoi eta Buruhandien Konpartsako kideek aurten ezin izan dute parte hartu Olaztiko Erraldoien bileran. Eguna hitzartua zuten (uztailaren 25a), baina Altsasuko sei erraldoiek, kalte handiak izanik, etxean gelditu behar izan zuten.



Irailerako erraldoiak dotore jarri nahi dituzte berriro.

● ARTXIBOKOA

JUAN MANUEL HERRERO Zaparratutako da erraldoiak konpontzeaz. Erraldoiak Domingo Lunbier eskola zaharretan gordetzen dituzte, baina eskolak urte batez hutsik egon dira eta jende askoren abentura gune bilakatu dira. "Ez dut uste erraldoiak apurtzera apropos inor sartu denik, bidean aurkitu eta jolasean hautsi zituzten", azaldu digu Pello Palaciosek, Altsasuko Erraldoien Konpartsako lehendakariak.

Domingo Lunbier eskolatar sartu zirenek jolaserako aitzakia ederra aurkitu zuten. Marco Antonio eta Momotxorroaren eskuetatik zintzilikatu, Sorginaren zapitik heldu... eta Errege mairua altxatu eta, aurrera-atzera egin ezinik, lepoa hautsi zioten.

Ziurrenik, jolaserako gogoia izanen zuten, baina ondorioak bestelakoak izan dira. Oraindik zehazteke dagoen arren, 200.000 pezeta inguruko kalteak egin dituzte.

Datozen asteotan Juan Manuel Herrero zaparratutako da 95eko erraldoiak (Momotxorroa eta Sorgina) konpontzea. Besteak beste, erraldoien atzamarrak joñ, Sorginaren zapia itsasi eta Momotxorroaren besoa konponduko ditu. Gerora, bikoterik berriena konpontzen dutenean, besteekin hasteko asmoa dute Konpartsako kideek. Festak iraillean direla kontuan harturik, ordurako bikote bat prest izan nahi dute, bederen.

Aurten, gainera, Altsasuko Konpartsak asmo berezia du festetarako. Erraldoien bileraren 10. urteurrena denez, Valentzia, Katalunia eta Portugalgo konpartsak gonbidatzeko asmoa dute. Horregatik, inoiz baino irteera gutxiago egin dituzte, aurrekontuaren (800.000 pezeta) zatirik handiena jaietako bileran gastatu ahal izateko eta behar bezalako urteurrena ospatzeko.

Gertatutakoa oso larria ez bada ere, gauzak bere lekuan jartzeko bidea ireki beharko litzateke. Domingo Lunbier eraikinak arreta handiagoko behar luke izan, herriaren erdian baitago, hutsik eta hondaturik.

Bestalde, Altsasuko Erraldoien Konpartsak lagun gehiagoren partaidetza behar du, azkenaldian zortzi lagun besterik ez baitira ibiltzen. Interesa duen edonork parte har dezake konpartsan.

Iturmendin eta Bakaikun idazkari berria dute

Astelehenaz geroztik Leitzako Ana Alduntzin abokatua da Iturmendi eta Bakaikuko idazkari berria. 30 urteko gazte horrek segida emango dio Juan Jose Montesek egindako lanari. Azken 41 urteotan idazkari bera izanik, nobedade handiko berria da bi udaltan idazkari berria izatea.

Errazkin

Hasiak dira sanestebanak

BART GAUEAN BOTATAKO SUZIRIAK eman zien hasiera Errazkingo jalei. Egia esan, suziri dexente izan ziren botatakoak, nola-bait barruko poza eta jai gogoa kanpora atera nahian. Gogo horiek agerian geratu ziren herri afarian eta, zer esanik ez, Modesto gizon-orkestraren arrimuan egindako dantzaldian.

Baina gaur festak aurrera jarraitzen du. Goizean, patroia eguna izanik, San Estebanen ohorezko meza izango da eliza konpondu berrian. Gero, etxez etxeko birari ekingo diote, puska-biltzean. Arratsaldean, berriaz, etxeko txikiak izango dira protagonistak, jokoak eta txokolatada antolatu baitituzte. Gaueko ordu batean, berriaz, nagusiak dultzemenean aritu ahal izango dira. Musika ez da faltako, Amaia eta Kristina trikitilariak ariko baitira.

Bihar, puska-biltzearen bigarren zatia izanen da goizean, herri paellada baino lehentxeago. Arratsaldean, berriaz, mendiko bizikleten igoeraren bigarren ekitaldia. Federatutakoek ez dute parte hartzerik izango, aukera berdintasuna izan dadin. Bestalde, gaupasa Trakets taldeak giroa du.

Igandeko protagonista kirola izango da. Goizean, umeen arteko pilota partiduak izango dira, eta arratsaldean Betelu eta Errazkingo mutilen arteko pala desafioa. Trikitixa ere ez da faltako, jalei amaiera emateko, Oskar eta Aitziber ariko baitira.

→ Urko Aristi

xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Haize hegoa mendebaldetik

Haize hegoa. Abuztuarekin batera giro beroa heldu zaigu, badirodi hau ere mendebaldetik datorrela. Dena dator EEBBetatik, baita eguraldia ere, eguraldi gizon eta emakumeak aspaldi ailegatu ziren bezala.

San Ferminen akabila. Bilbo-Frankfurt-Detroit. Putzua gurutzatuta ulertu dut zein izanen den gure etorkizuna, ez ordea maitatu.

Aireportutik etxerako bidean, kotxe berri-garesti-haundiaren leihotik begiratuta etxe guztiak dira berdinak: altuera txikia, jardin berde-

berdea, bi-hiru kotxe atarian, bandera izar-marraduna airean. Etxe bat bertzearen segidan, bizilagunek elkar ezagutu gabe halere.

Etxeen ilada akabatu eta azalera haundiko eraikinen txanda. Hemengo zentro komertzialak, hango hallen saiakera ttiki bat bertzerik ez dira.

Etxera ailegatu eta armarioa ireki. Pizzak, burger hormonadunak, coke-ak, entsalada transgenikoak... Aski ezaguna guretzat! Telebisita bixtu eta are ezezagunagoa dena. Kate bate-

an lau emakume negarrez, bertze batean bi gizon elkar joka, eta bertze guzietan, John-Johnen bizitza eta heriotza (American Tragedy).

Stanley Kubrick-en azkena ikustera joan, bakarrik orgia ikusteagatik eta 2 ordu pantailaren aitzinean pasata, ondok, zentsurak biluziarazi arropa pasatu dio. Pelikulak utzitako gustu txarra kentzeko, ostatu batean zerbeza bat eskatu. Heldutasuna frogatzeko pasaportea erakutsi behar! Sexurik ez, alkoholik ez, baina tabernariak, barraren azpian, Magnum bat.

Bera • Mendi pistak, arauturik



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Zutabegintzaz (I): Potrojoan.

Egun hauetan, adiskide batzuekin batera, egunkarietako zutabeak klasifikatzen aritu gara. Talde pseudoliterario honen helburua zutabegintzan aurkitu ahal ditza-kegun eredu diferenteen parodiak egitea da. Hona hemen aurrekoa: Potrojoan izendatu dugun zutabe eredu. Gure ohartxoak parentesi artean paratu ditugu.

"Bi mila karaktere idatzi behar ditut, eta hauek dira lehendabizikoak. Gero beste batzuk erantsiko ditut, bi mila horiek osatu arte. Banituen gauza batzuk idatziak egun hauetan gertatu diren hainbat pasadizori buruz, baina, tamalez, beste artikulugile batzuek aurrea hartu didate. Horrela da bizitza (aharrausia). Orain, zertaz idatzi behar dudan pentsatzen ari naizela, ohartzen naiz dagoeneko urtea bete dela *Egunkari*arako artikulua idazten hasi nintzenetik (aharrausi luzea). Denbora azkar pasatzen da, bai horixe. Oraindik oroitzen naiz *Egunkari*atik hotsegin zidaten egun hartaz: "Prest al zaude artikulua batzuk egiteko?". Baietz erantzun nien. (Begi-bistakoa). Artikuluekin gauza kurioso bat gertatzen da: batzuetan, mementu batean egin izan ditut, eta beste batzuetan, aldiz, kurioa da zenbat eta zenbat lan ematen duen artikulua xume bat osatzeak (ze kurioa!). Hemen aipatu nahi nuke lehenago idatz-makinarekin egiten nituela eta orain pantailari begira. Batzuek ordenagailuak gorrotatu egiten dituzte, baina hori ez da nire kasua: nire ustez, erabileran datza guzti-guztia. Hau da, ez dago gauza txarrik edo onik, kontua da nola eta zertarako erabiltzen duzun. (Mmmm... interesantea). Niri behintzat orain erosoago suertatzen zait lana idaztea. Bai. Hala da. Baina bueno!, batzuetan ere artikulua osoak galdu izan ditut, jajaja, ordenagailua lana salbatu aurretik izorratu denean! Bai. Jaja. Galtzagorri maltzurak, badakizue. Eta guztien ahotan dagoen Internet horri buruz zer esango dizuet? Batzuek gauza txarra dela diote. Beste batzuek mundua ia-ia salbatuko duela. Nire ustez, ez bata ez bestea: ez da ez horren ona ez hain txarra ere. Kontua da nola eta zertarako erabiltzen duzun. Nik, esate baterako, artikulua hauek *Egunkari*ara bidaltzeko erabiltzen dut eta izugarri azkarra iruditzen zait! Nire kasuan oso la-gungarria da teknologia guzti hau. Lehenago fotokopiekin eta gutunekin galtzen nituen indar guzti horiek, orain, berriz, bere osotasunean, idazteari eta testuari berari bideratzen dizkiot. Eta, nire ustez, horrek emaitzak ematen ditu. Nabaria da. (bai, ejem)". ●

→ Jon Abril

Azken urteotan 4x4 autoek eta motorrek mendietan egindako kaltea hemendik aurrera gutitu asmotan, mendi pistetan barrena auto motordunetan ibiltzeko ordenantza bat onartu berri du Berako Udalak. Ordenantza horrekin, pista anitzetarako sarbidea galarazia izanen dute autoek.



Ekologista talde bat mendi pisten aurka protestan.

● ARTXIBOKOA

AZKEN URTEOTAN GERO ETA gehiago ikusi izan dira Berako mendietan barrena motorrak eta autoak. Horietako anitz Iparraldetik eta Frantziatik etortzen ziren, maiz enpresa pribatu batzuek kudeatuak. Frantzia debekatuta dago mendietan barrena auto eta motorretan ibiltzea; horrenbestez, Hegoaldean barrena ibilaldiak antolatzen dituzten enpresak sortu dira, eta mugako herrietan nabarmen ibili izan dira. Hemendik aitzinera, aldiz, Beran erabile-

ra hori izugarri murriztuko da, eta ezin izanen da edozein mendi pistatan ibili. Mendien ibilgailu motordunekin ibiltzeak pisten hondamena eragin du sarritan.

Aurrerantzean bi motatako pistak bereiziko dira: bi metro baino gehiagoko zabalera dutenak eta bi metro baino guttiagokoak. Pistetatik kanpo ezin izanen da ibilgailu motordunik erabili, ez eta bi metroko zabalera baino tikiagoa duten bideetan ere. Halaber,

erabilera onartua duten pistetan abiadura murriztua egonen da, eta inongo kasutan ezin izanen da orduko 15 kilometroko abiadura gainditu.

Erabilerarako salbuespenak

Arau horietatik salbuetsita egonen dira baserritarak, arbolak ateratzen dituzten langileak edota bertze arrazoi batengatik erabilera hori azal dezakeen pertsona oro. Horiek udaletxean baimen bere-

zi bat eskatu beharko dute. Berdin gertatuko da Larun kaskoraino joaki den bidearekin ere. Bertako komertziantek baino ez dute eskubiderik izanen baimena Berako mendirik gailurreneraino ibilgailu motordunez goitzeko. Erabilera okerraren eraginez, Udalak zigorrak aurreikusi ditu, beti ere legeak agintzen duen gehienezkoa 50.000 pezetakoa izanik.



herri aldizkariak

Asier Legarda

Ibardin: frantsesen paradisia

TTIPI-TTAPAaldizkariaren azken zenbakiko erreportaia nagusian Ibardingo gainean ikus daitekeen mugimendua aztertu du Asier Gogortzak. Izenburua esanguratsua da: *Alkohola eta tabakoa, frantsesentzat amua*. Frantzia aldetik muga zeharkatzen duten milaka bisitari buruzko hausnarketa egiten da erreportaian.

Erreportaia honek dioenez, «udako sasoiaren denetara 500 langile enplegatzen da Ibardingo bentetan», eta horren arrazoiak «alkohola eta tabakoaren prezioa» omen da. «Litro bateko Ricard botila batean 1.200 pezetatako diferentzia (47 li-

bera) aurkitzen dute erosleek. Marlboro pakete batean berriz, hiru bat liberako aldea (75 pezeta)».

TTIPI-TTAPAkoek prezio diferentzia horren arrazoiak ere eskaintzen digute bertan: «Estatuek alkohola eta tabakoaren gainean kobratzen duten zerga berezian dago kokka. Izan ere, Estatu Espainiarrak saltzen den Whisky botila bakoitzarengatik 456 pezeta biltzen ditu, eta Frantsesak, berriz, hori baino dexente gehiago. Gainera BEZ edo IVA delako zergarekin ere gauza bera gertatzen da. Espainian %16koa den bitartean, Frantzia %20,6koa da».

Hala ere «bi droga bigun horiek» ez omen dira frantsesak Ibardingo gainera hurbiltzearen arrazoi bakarra: «Dena den, erosketak egin bidenabar egunpasa egiteko ere probexten dute frantses turistak. Paisaiak erakartzen ditu, udan bista ederrak izaten baitira kaxkotik, hegoaldean mendia eta Iparraldean itsasoa». Eta, amaitzeko, eskakizun bat ere egiten die Asier Gogortzak frantsesei, esaten duenez turista hauetako askok ez baitute Bera ezagutzen: «Berako komertzio eta ostalaritzarentzat bulkaldi polita izanen litzateke turista horiek herrira bideratzea Ibardingo erosketak egin ondotik».


Torero bihurtzeko lanbide eskola

Arradan Nafarroako zezen eskola martxan da 1984az geroztik

Uztaileko azken astean, Santanderko zezenplazan, hartu zuen alternatiba Francisco Marco Lizarrako gazteak. Haren ondoan Manolo De los Reyes irakaslea zegoen, irribarre handi bat zuela aurpegian. 1984an Nafarroako Zezen Eskola martxan jarri zuenetik hainbat gazteri zezenaren aurrean zer egin erakutsi die bertan Sanlúcar de Barramedan jaiotako gizon horrek.

GURE HERRIAN ASKO DIRA ZEZENKETA HITZA aipatu orduko horren kontra hitz gogorrak botatzen hasten direnak. Zezen gixajoei jasan behar izaten dituzten gehiegikeriak ezin ikusita batzuk, zezenen festak berarekin duen espaloi kutsuarengatik beste batzuk. Dena dela, zezenketen aldekoak ere badira gure artean, Nafarroan adibidez Pablo Hermoso de Mendoza burtzikarien artean ospetsuena dauka, eta Francisco Marco ere —hau ere Lizarrakoa— sartu zaigu jada zezenketen munduan, uztailean bertan hartu baitzuen alternatiba, Santanderren. Baina ez da kasualitate hutsa, Nafarroan aspalditik izan da zezen zaletasun handia, Erribera aldean batik bat. Arradan 1948az geroztik lapean ari da Nafarroako Zezen Eskola, Manolo De los Reyes torero izandakoak Nafarroako gazteei toreatzen irakasteko asmoa egia bihurtzea erabaki baitzuen.

Lehenago ere egon ziren toreatzen irakasten zuten taldeak, baina, ordu arte ez bezala, De los Reyesek instituzionalizatu egin zuen bere jarduerak, nahiz



Ikasleak eskolako zezen plaza txiki baina dotorean.

• JOXE LACALLE

eta horretarako ez duen inoliz Nafarroako Gobernuaren aldetik inolako laguntzarik jaso. Hamabost urte pasatu dira jada eskola martxan jarri zenetik, eta aspaldiko kontuez hitz egiterakoan jarri ohi den aurpegia jartzen du Manolok eskolaren hastapenaz hitz egitean: «80ko hamarkadaren erdialdean izugarriko boom-a izan zuen zezenetarako zaletasunak Nafarroan, ni orduan oraindik torero lanetan ari nintzen eta beti izaten nuen alboan ofizioa ikasi nahi zuen gazteren bat. Une batean zazpi edo zortzi izatera iritsi ziren nirekin alde batetik bestera zebiltzan gazteak, eta hori ikusirik Nafarroan Zezen Eskola baten beharra zegoela iruditzi zitzaidan, eta horrelaxe ekin nion lanari». Bere torero prestakuntza-aren barne, ezagunen finketan egiten zituen entrenamenduetan berak baino gehiago berarekin zihaozen gazteak toreatzen zutela ikusirik, Manolo De los Reyesek behin betiko erabakia hartu zuen, Nafarroako Zezen Eskola sortu zuen.

Berrogei ikasle inguru

«Lehen, torero izan nahi zuten nafarrek kanpora irtiten behar izaten zuten, Madrilo edo Aragoiko zezen eskoletara, eta hori aldatzeko garaia heldu zela erabaki nuen», esan zigun Manolok, ikasleak entrenatzen diren El Cor-

tijo izeneko bere finkan. Gaur egun 40 ikasle ditu, baina zaletasun hau ogibide bilakatu nahi dutenak ez dira hamar baino gehiago: «40 ikasle eman dute izena, baina bakoitzak bere helburuak ditu; batzuk hemen bizi dira, beste batzuk, berriz, aste-

Francisco Marco, zken torero nafarra

Francisco Marco Lizarrako gaztea izan da Nafarroako Zezen Eskolatik ateratako azken harribitxia. Azken urteetan nobillada ugari egin ostean, uztaileko azken astean alternatiba hartu zuen, eta ez, gainera, nolanahiko torero baten eskutik, Curro Romerok bihurtu baitzuen torero Lizarrakoa.

Cuatro Caminos zezenplazan egin zuen debuta, beraz, Francisco Marco; Santanderko Santiago feriako hirugarren zezenketan, hain zuzen ere. Curro Romero eta Jose Tomas izan zituen lagun harea gainean, eta Lizarrakoak nota onarekin pasa zuen lehen proba. Zale batek oparitutako 407.000 pezetako jantzi dotorearekin

eta Santofia dardalak (han bizi ziren haren familia partitako kapelekin, Sanchiñona ganadutegi bateko lehen zezena, a salo txukun ostean, belar bat ere eraman eta etxera. Hasieratik ez da egin lan honetan, baina mende hamargarren torero nafarrak bide ona hartu du.



Curro Romeroen eskutik hartu zuen alternatiba Francisco Marco Lizarrako gazteak. • JOXE LACALLE

buruetan efortzen dira, eta, noski, ezin da denekin entrenamendu plan bera egin; gainera, batzuek beste batzuek baino denbora gehiago daramate eskolan, eta jende aurrean toreatzen hasteko gutxi falta zaienak ere badira».

metro gutxira Manolok baditu zezen batzuk, eta tartean behin zezen horiekin eta inguruko ganaduzaleek utzitako beste batzuekin zezenketak antolatzen dituzte eskolako zezenplaza txiki bezain dotorean. Manolok esan zigunez, zeukan dirua baino askoz gehiago inbertitu behar izan zuen eskolan, «baina, zorionez, hamabost urte hauetan hogei gazte baino gehiagok lortu dute zaletasun hau lanbide bihurtzea, eta arrakasta lortzen dutenean gogoratzen dira gutaz. Alternatiba hartu dutenak hiru besterik ez dira izan: 1992an Francisco Javier Martínez Paquiro-k, 1997an Edu Graciak eta aurrean Francisco Marco. Baina eskola honetatik pasatutako mutil asko ari dira gaur egun banderillero edo nobillero lanetan».

Doñanatik etorrria

Manolo De los Reyesek 1973ko San Joan egunean Tolosako zezenplazan alternatiba hartu zuen arte makina bat komeria pasatu behar izan zituen. Sanlúcar de Barramedan jaiotako gizon honek, egun batean Doñanako padurak utzi eta hainbat



Manolo de los Reyes torero ohiak erakusten die gazte nafarrei toreatzen.

• JOSE SANTESTEBAN

Gaur egun 40 ikasle dute izena emanda Nafarroako Zezen Eskolan. Bakoitzak bere helburuak ditu, baina serioski zaletasuna ogibide bihurtu nahi dutenak hamar inguru dira.

15 urte hauetan hiru gaztek lortu dute alternatiba jasotzea: 1992an Francisco Javier Martínez Paquiro-k, 1997an Edu Graciak, eta aurrean Francisco Marco

aldiz entzun zituen torero famatuaren kontuak gertuagotik ezagutzera abiatu zen, eta hainbat tokitan muturreko ederrak hartu ostean Burlatan amaitu zuen igeltsero lanean, zezenketa baten parte hartzeko ordaindu behar zuena aurreztu arte: «Nire herrira toreatu gabe ez nintzela itzuliko zin egin nuen, eta, egia esan, itzuli nintzenean lruñean egindako aukera zezenketa batean arrakasta handia lortu berri nuen. Burlatan asko lagundu zidaten, peña bat ere osatu zuten nire omenez, alternatiba jaso nuen arte, Curro Giron venezuelarraren eskutik».

Garai gogorak bizi zituen arren, gaur egun ez omen dira gauzak askoz errazagoak: «Feria handietan zezenketa asko izaten da, baina nobillada gutxi, eta horrek hasi nahian dabilzenei arazo asko sortzen dizkie. Ia 300 nobillero daude une honetan, eta feria handietan 20 nobillada egiten dira urte osoan; horregatik, feriaz kanpo antolatu behar izaten ditugu nobilladak, kategoria gutxiagoko zezenplazetan, eta hori oso garestia izaten da».

Zezenen heriotza

Zezenketak euren krudeltasunagatik gaitzesten dituztenak ere gogoan izan zituen Nafarroako Zezen Eskolako zuzendari eta arduradun nagusiak, eta gogor salatu zituen zezenketen aurka lan egiten duten ekologistak: «Taldea horietako kideak ausartegiak dira, mundu hau ezagutu gabe protestak egiten dituztelako. Zezenen munduari buruzko informazioa bildu behar lukete, orduan konturatuko lirake zezenzaleok baino gehiago ez dituela inork maite animaliok. Zezenarekiko maitasun harreman estuagatik dirurik gabe geratu diren ganaduzale asko ezagutzen ditut, eta, nire ustez, hori da benetan zezenak maitatzea; gainera, garbi dago zezen mota hau ez zela bizirik egongo zezenketengatik ez baliat izan, haragitarako ez baitu balio eta lanerako ere ez. Zezena bere heriotzaren ondorioa da, beste la Pirinioetako betizuekin gertatutakoa gertatuko zen, arraza bat galduko zen».

→ Asier Legarda

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Oar-Arteta idazle bizkaitarraz

Berri maratza iritsi zaigu Oar-Artetaz, idazle honen Segundo ilobak jaso zigunari esker bereziki, bai *Littera* aldizkarian behiala argitara emaniko artikulu batean, bai *Zaar-barri* liburuaren edizio berantiarerako ondu sarrera biografikoan. Alta, eta Bizkaiko beste egile ugari bezala, nahikoa urruti geratzen zaigu ekialdeagoko euskaldunoi.



JOSE ANTONIO OAR-ARTETA Undabeitia Ajangizzen jaio zen, Kanpantxu auzoko Uriarte-Aurreko baserrian 1900.eko otsailaren 18an. Etxeko giroaren itzalean, ez zuen arazo haundiegirik apezgaitegian sartzeko, bada, lehendabizi karlista eta geroago jeltzale sutsua zen sendi batekoa baitzen; humanitateak ikasteari Lekeition lotu zitzaion lehenengoz, irakasleen artean, Juan Bautista Eguzkitza euskal idazlea bera izan zuen zuzenbidea; geroago Gasteiza abiatu zen, baita Burgosera ere teologia ikasketak burutzera, eta azkenik, 1923.eko maiatzaren 26an apezte zuen Gasteizen. Apez lanetan ihardun baino lehen, soldadutza egin behar izan zuen Gasteizko «Quipúzcoa» bataillonan, Alhucemasko itsasle-horreratzera zela eta, Algecirasen egotea egokitu zitzaizolarik. Denbora laburra eman zuen hartan, ordea, eta urte hartan berean Euskal Herriratu zen abade lanei atxekitzeko; 1923.eko urriaren lehenetik Letonako erretoarea genduen; 1924.eko martxoaren batetik Larraurain izan zen apez-laguntzaile moduan; zeregin berbera betetzeko bidali zuten Ibarrangelura 1927.ean, Mallabiarra 1930.ean eta Markinara 1931.ean. Markinan izan zen 36.eko gerratea iritsi artean, eta orduan, erbestera bidea harturik, Santoñatik Frantzia alde-ara egin zigun hanka 1937.eko uztailaren: Bordele, Nantes, Belgikako Duffel eta Grimberg, Amiens, Roye; alemaniarak iritsi zirenean, gure Iparraldera mugitu zen, eta Ziburun bizi izan zen apez lanak eginez 1947.ean hegaldara itzuli zen arte; 1949.eko apirilaren 20an Lemoizko apez-laguntzaile egin zuten, eta hantxe izan zen 1975.eko apirila arte Gernikako abade-jubilatuaren egoitzara joan zen arte, hots. Ziburun emaniko bulta oroitzearen, lehengusarekin atera zen bidaian 1978.eko abenduaren 28an, eta Markinatik pasatu osten, Urberuaga parean, auto istripua izan zuten, errekar eroriz bertan ziplo hilda geratu zirela. Oar-Artetaren lehenbiziko la-

nak Jaungoki-zale elkartearen barruan burutu zituen. Apezen elkarte hau Amorebietan sortu zen 1912.ean, Zirilo Arzubia-garen ardurei esker bereziki; urte hartaz geroz eta 1932.era arte izen bereko aldizkaria argitara eman zuten, urte hartan ere *Ekin* izenpean astekari berri bihurtzeko. Aldizkariak aparte, elkarrekin liburu-argitaratzaile lana ere bete egiten zuen Zornotzatik, eta hartan arizan ziren izen hantuko idazleak Oar-Artetarekin batera, esaterako Eguzkitza, Gabriel Manterola, Gurutz Ibargutxi, Zamarripa, Izurrategi, Igorreko Julen, Bedita Larrakoe-txea, Etxaniz..., etabar luzea.

Oar-Artetak Jaungoiko-zale elkartearen barruan argitara eman zuen lehenbiziko lana Sardā i Salvany idazle katalu-niarraren liburuak baten itzul-pena dugu, hau da, *Aratuzteko iru-urtena: Jesus sakramentu-kua* egun onetan egiten yakozen iraiñen ordainketa, 1930.ean ageri zena. Aztertzailea Santa Teresako Jose Domingoa fraide karmeldarra izan zuen, Frantzisko Ugartetxea musikari trebea alegia. Baimen emaleak ezer arbuia-garrik ez bazuen ere, ez zen guztiz fido egilea be-za eginiko lanaz, eta badaezpadazko oharra azaleratu zigun sarreran irakurleak mamiai atxe-ki zekion, euskararen inguruan orduan zirakien aferaren gaine-tik: «Ez elerti arauz begiratu, asmo zintzoai bakarrik jaramon egin. Obarik ez dagon bitartean erabili, ta obarik agertzen dan ereaz batera, berialaxe, erruki barik baztertu».

Zornotzan argitara eman zuen bigarren lana 1931.eko *Jesusen biotzaren illa* dugu. Onaindiak zioskunez, Azkuek gai berari buruzko lana bazuen egin, alabaina egokiago zeri-tzon Oar-Artetak ondurikoa, neurritz eta gaiez, eta alde ma-kalen bat nabarmentzekotan, Jaungoiko-zaleko sasi-jakin-tsuek berek aldatu zizkioten adizkiak zirakeen. Manuel Le-kuonak egin zion zentsuran, al-diz, ez da laudoriozko hitzik bai-

zik: «Sermoilaria degu orren egi-lea. Ezagun du. Itza errex dario nun naitik. Errex eta ugari. Iz-kearako errextasunak ordea, ez dio bat ere kalterik egin bear-zan argitasunari. Argi darabil, oso, bere esagaia. Eta egoki, oso egoki. Ez du idaztiak bear ez dan gogorkeririk. Biziro gozoa ta atsegiña du irakurtzea. Idaz-tia errex egiña, irakurri ere, errex egiten da». Ez ziren hona-kook hitz hutsak, eta Lekuonak latinez tajutu zuen *Manuale sa-cramentorum* liburuaren euskal aldaera prestatzeko Oar-Arteta-ri eskatu zion, aurrekoak bezala ere, Zornotzan ageri zena, 1934.ean baina. Jaungoiko-zalekoekin batera ondu zuen az-ken lana *Baltzeoa pekatu ete da?* 13 orrialdeko liburu eskasa dugu, 1936.ekoa.

Urte honetan ere, *Mirenen se-nargeya* idazlana eman zuen ar-gitara Bermeoko Gaubeka etxe-an, egiazko jazoera batean oina-rriturik, berak asmatu elaberri antzekoa. Markina izkutatzen duen Basaibar izeneko herria da jazoeraren eskenatoki hauta -Mogelen eragina, hortaz, ezin arraro gertatu-. Elaberrian azale-ratu zigun gaia ez zen berria, eta jada 1934.eko Euz-kadi-n argitara eman zuen *Sasi-ekkontza* an-terkilanean oretu zigun, geroxeago ere, 1949.ean, erde-raz egin bezala bere *Misterio del matrimonio* liburuan.

Gerrateak eten egin zuen Oar-Artetaren idaz-abiada; egia da azken urteetan berri ere idazlari jarri zela, honen lekuko 1963.ean Bilbon argitaratu zuen *Begoñako ama birgiñari bedera-tzi-urtena*, zein argitaragabe di-rauten hainbat idazki, jatorriz-koak nahiz itzuliak. Gorago ai-patu bezala, Segundo ilobak *Za-ar-barri* laburren bilduma ederra atera zuen Bilbon 1991.ean La-bairuko eskutik -lan hau Ger-nikako apez jubilatuaren etxean ze-goela ondu zuen, 1977.eko Az-kue sarira aurkeztu zuelarik, a-labaina, Manuel Estonba gertatu zen edizio haren irabazlea-. Edo-zein modutan ere, eta beste egile ugariarekin gertatu zen bezala, ezin da ukatu gerrateak txipitu eta neurri batean ere galdua.



etorri ahal lea n

Patziku Perurena



Jende izenak euskaraz

Mikel Hoyosen *Euskal izenak* liburuak ekarri didate, eta ezin utzi pasada eman gabe. Kontu polkit jakinga-ri eta entretengarri franko ba-dakar. Honatx batzuk, neremo-du xalagardatuak:

ABARNE (Ramos) izango litza-teke neskontzako aldaera eta ABAR mutilentzako. Leitzan bada, «Erramuseme» izen zaha-rreko etxea, gaur «Mendizabale-ne» ostatu dena. Eta etxean eta auzoan ere, maiz aditua naiz ni «Erramux» izenordea, edozein gi-zaseme xaharri goxo eta grazioso deitzeko. Altari berari askotan guk.

BINGEN (Vicente) latinezko *Vincens* hitzetik dator, eta «ga-railea» esan nahi du. «Bingen» izena Sabino Aranasko asmatua da, baina, «Bikendi» eta «Bixin-txo» dira tradizioak euskaratu dituenak; eta «Mikeldi» beste al-daera, Durangoko auzune baten izena ere bada, garai batean San Bizenteren ermita zegoeneko le-kua; hantxe aurkitu zuten Mi-keldi idoloa, k.a. 1000. urte al-dera harriaren zizelatua: zezena eguzki / ilargiak irudikatzen di-tuen diskoa sabelpean duela. Ai-zak lagun Bixente, hik ez al duk horretatik dextente?

DEUNORO (Santos / Tous-saint). Erdarazko horien pare, euskaraz Deunoro eta Santuru topatzen ditugu. Aurrenekoa, Deunoro, S. Aranasko asmatua (deun + oro = santu guziak), iza-nez ere, santu guzien egunean jaiotakoei ipintzen zitzaion izena baitzen. Bigarrena, askoz zaha-rragoa da, Erdi Aroko zenbait testutan agertzen dena, latinez-ko *sanctorum* hartatik etxeko-tua. Areson bada etxea, Santuru izeneko. Niri ordea, Goizuetako Txapomordan xaharturik ezagu-tu nuen Xantux xelebre hura da-torkit gogora.

ELAZAR (Lazaro) hebraierako Eleazar izenetik S. Aranasko ate-rea, eta «Jainkoak lagunduko du» esan nahi omen du. Jesusen laguna zen Lazaro, eta haren

etxean hartzen zuen ostatu Je-rusalenera joaten zenetan. Lei-tzan bazen Laxaronborda izene-ko baserria, oraindik hantxe daude pareta zahar erorixeak. Lazaretoa ere bai, Gazpillozulo-ko errekar haruztik, Añalde bi-tarte horretan. Eta pentsatzekoa da, lazarusok edo lazarinok ere izanen zirela. Lazarillorik ez dakit. Kontua da, lilura sortzen didan izen horietakoa dela Laxa-ro ditxarik gabe.

GONTZAL (Gonzalo / Gonsal-ve). Erdi Aroko *Gundinsalvus* izenetik sortua da Gontzal izena, eta (gundi + all + vus) horrek, «burruka orotako prest» edo ho-lako zerbait esan nahiko luke. Leitzan badira Ontsalone izene-ko etxea eta baserria. Goizuetan ere bai, Untxalo etxea eta Ontxa-ri baserria. Aitaren aldeko amo-na nereak ere, Ontsari zuen bi-garren deitura. Eta oraingo alka-tesa bera M^a Pilar Untxalo da izen deituraz. Denak erro bere-koak dituzu.

PRAIXKU (Francisco / Fran-çois). San Frantzisko Asiskoari aitak *francesco* izengoitia paratu zion, «frantsesa» alegia. Eta ho-rra nola sortu ziren geroztik gure Fraixku, Patxiku, Pantxo eta abarren artean Mikel Hoyosek ukatu didan nere izen zakarra. Asisko hari ez dakit zergatik dei-tuko zion aitak, baina, esan de-zaket, nafarrantzako, menderen mendetatik, frantsesa gaizto izan dela. Beraz, izena eta izana ere usarioz ongisko datozkit.

SEMENO. Erdi Aroan izen gu-txi izan dute honek adina aldae-ra: Ximeno, Semeno, Semero, eta gero, Jimenez, Jimeno... Horen jatorria, behar bada, senidetasu-na adierazteko hitzak (aita, amo-na, ama, nai) izen gisa erabiltze-ko usario zahar hartan omen le-goke, eta hartara «seme» omen genduke guzian sorburu. Akita-nian aurkitu ziren inskripzio ba-tzutan «Sembe» ageri omen da izen gisa. Areson badira Semero Goikoa eta Semero Beikoa etxe izenak, baina oraindik ez dut eza-gutu euskal semerik haien etimo-logia tajuz argitu didanik.

Ziria

• Motxorrosolo •

Lagunaren maitasuna

AGINTE POSTUAN AURREKOAK, INGURUGIROAZ ETA ETXEBIZITZEN PREZIO-az arduratuko den horrek, pribatuan esana du, D ereduaren matrikulazioaren goranzko bidearena berri txarra zela. Norendako txarra? Berriak, izenari izana, maitasuna erakutsi nahi dio. Aspal-di ikasi genuen, maitatu ez, ibili behar genuela. Hizkuntza kontue-tan nonahi oztupoak ikusten dituztenek zentsuz aukeratu dute. Eleaniztasunak dakarzkigun onuren berri emateko prest al dago?

Cesareo Soule

Bozateko eskultorea

«Agota izan edo ez, argi dago haien ondare kulturala jaso dudala»

Duela 51 urte jaio zen Cesareo Soule, Arizkongo Bozate auzoan. Soulek, ezinbestean, eskulangilea izan behar zuen, horixe eskatzen baitzion Bozate agot auzoaren ohiturak. Ez daki arrazaz-edo agota izanen denetz, baina kontent dago agoten tradizio hori jaso duelako. Soulek harriak lantzen ditu, bere aitak egin zuen modura, eta duela guti nazioarteko eskultura lehiaketa batean erakutsi zuen agoten ondorengoak «gauza arraro» ederrak egiteko gauza dela.



• JOSU SANTESEBAN

EKAINEN FRANTZIAKO BERgerac-eko eskultura lehiaketatik, bigarren postuan gelditu eta, lehenari zegokion oparia ekartzea erdietsi zuen Cesareo Soule bozatarrak. Uraren gaineko eskultura bat egin behar zuten, eta almadia egitea otu zitzaion Souleri.

■ Nola izan zen Bergerac-eko lehiaketarena?

Frantziatik deitu eta erran zidaten hamabi nazionetako eskultoreen arteko lehiaketa batean parte hartzeko selekzionatu nindutela. Nik ez dakit nondik selekzionatu ninduten, haiek ere ez zekiten nondik eta norat, baina tira. Ekainaren 17an hasi eta 20an bukatzen zen. Eta hor zegoen problemarik handiena zen ez genekiela zer dimensioe izanen zuten harriak. Pentsatzen ahal zenuen gauza bat egitea, eta handiagoa edo txikiagoa zen beharbada. Orduan, behar zen gauza anitz pentsatu.

■ Gaia ura zela bazenekiten behintzat.

Horrekin ez neukan problemarik, uraren gainean badaudelako gauza asko egin daitezkeenak. Pentsatu nuen beharbada zubi bat eginen nuela, edo errota zahar bat edo Baztango erreka sortzen den toki ederra edota ureko arrain bat ere bai. Ez neukan garbi zer

egin, ez nuelako harriaren inolako dimensionerik.

■ Eta harria ikusi zenuenean almadia egitea erabaki zenuen.

Harria ikusi nuelarik, ez nuen dudatu almadia bat egin behar nuela. Nahiz eta garbi izan harriak hogeit bat zentrimetro eskas zituela. Hor zen beste problema bat ere, handia: ordu gutxi zegoela lan egiteko. Denetara, 15 ordu ostiraletik igandera. Igandean, ordu bat falta zenean, ez nekien bukatuko nuen. Oso gaizki pasa nuen. Asko nekatu nintzen. Baina Baztan aldera zerbait ekarri nahi nuen. Lehiaketa Frantziaren zenez, argi genuen lehen postua frantses batendako izanen zela. Hortaz, bigarrena ekartzea lortzen bagenuen kontent egon gintezkeen. Frantsesak eraman zuen lehena, eta nik bigarrena. Hor izan zuten detaile bat, eta nik asko estimatu nuen. Lehen postuari zegokion erregalua, frantsesari beharrean, neuri eman zidaten. Eta gero horko organizadore batek erran zidan lehenbiziko premia eramaten nuela.

■ Nondik datorkizu harriak lantzeko afizioa?

Batez ere aitarengandik. Aitak ere harriak lantzen zituen, baina ez asko. Aitaren-

«Beste eskultoreek egiten dutena nik ez dut egiten ahal, baina nik egiten dutena haiek ere ez»

gandik ikasi ditut, batez ere, sekretu prinzipalenak. Gero, lanak berak erakusten du trukuak badirela. Bestetik, gus-tatzen zait beste eskultoreen lanak ikustea. Baina ez zait sekula gustatu gauza berdina egitea. Besteek egiten dutena ez dut egiten ahal, baina nik egiten dudana haiek ere ez.

■ Beste afiziorik duzu?

Lehen fosilak hartzen nituen. Munduko leku askotan ibili naiz, eta guzietatik fosilak ekarri ditut. Hego Afrikan izan nintzenean, hogeita hamar kilo ekarri nituen. Ezkondu nintzen geroztik ez horrenbeste. Antzinako lanabesak ere gordetzen ditut, pentsatuz beharbada agotek erabilitakoak direla. Hemen badira erremin-tak berrehun edo hirurehun urtekoak. Duela gutxi bi eskopeta ekarri zituzten, zaharkiturik, zikinak. Txukun-txukunak paratu nituen. Jabea etorri, eskopeta berak zirenik ez zuela sinisten erran eta eraman egin zituen. Pena eman zidan, baina harenak ziren.

■ Agoten ondorengoa zara?

Herentziz heldu den gauza bat bezala hartzen dut nik agotena. Agotek denek bazuten ofizio bat, mota guzietakoak. Horregatik dago Bozaten horrenbeste eskulangile. Tiki-ttikitatik ezagutu ditut mota guzietako eskulangileak.

■ Zure agot izaera aldarrikatzen duzu?

Hainbeste gauza erran dira agoten inguruan, nik uste dut pasatu egin zirela. Gero kanpoko jendea etorri eta galde-tzen duenean ea hau ote den agoten auzoa, adineko jendeak, noski, gaizki erantzuten du. Ez baitute gustuko agoten ondorengoak izatea. Ni, ordea, oso kontent nago agota naizelako. Ez dakit izanen naizen edo ez, baina dudarik ez dago haien ondare kulturala jaso dudala. Inportanteena da hemen zerbait bazela, denek bazutela ofizio bat eta hori gorde dela hala edo nola.

■ Galduko da?

Ez dakit, ofizio hauek akabatzen ari dira. Ez dago gazte eskulangilerik baina badira ikasi nahi dutenak. Oronotz-Mugairin eskulangile eskola bat paratzeko proiektua dago. Merkataritza Ganberakoak interesaturik daude. Eskulangileok ez dugu arazorik, eta prest gaude erakusteko.

→ Asier Azpilikueta

soslaia

Cesareo Soule Elizondo 1948ko otsailaren 25ean jaio zen, Arizkun, Bozate auzoan. Duela hamar urte ezkondu zen, eta bi seme ditu, 4 eta 7 urtekoak. Duela guti Elizondoko feria batera eraman zituen bi semeak harria pikatzera, eta txunditu egin zen tikiak hobeki mane-jatzen zuelako zizela besteak baino.

Etzegintza eta kanposantuko hilarriak eta armariak egitea du lanbide, «honetatik» (eskulturatik) bizitzetik ez dagoelako. Armariak-eta egiteaz aspertu dela dio, eta betidanik gauza arraroak egitea izan du gustuko. Eskulturrei ez die sekulan ere izenik paratzen, eta harritik puska guziak profitatzen ditu. Gazez egiten du lan batez ere, eta jubilatzean jo eta su ibiliko da «gauza arraroak» egiten.

Bere etxeko 94 metro koadroko gela batean eskultura lanak, fosilak eta antzinako trasteak bildu ditu erakusketa gisa. «Dudan guzia paratzeko honen dolea eta gehiago behar nuke» erran du. Eta ez zaio arrazoirik falta.



Nafar Kronika

Kike Diez de Ultzurrun

UPNren uzta

Euria ibintzeak berdatzen ari den honetan, opor giroa nagusitu da Nafarroako politikagintza ofizialean. UPNkoak arrot lasai joan dira atsedean hartzera, euren garaipenaz gozatzera, haiena bai garaipena inorena izatekotan. Behar bada, hauteskunde gauean eta ondoko egunetan, iritzi emale eta jende aunitz ez zen horretaz ohartu, abertzaleen gorakadaz liluratuta. Egia erran, bozketa egunaren ondotik ia dena atera da Kordobillako kazetariak aurrekusi eta manatu bezala, hots, talde eskuindarra agintean, aurreko legealdian baino aunitzez ere erosoago eta bizkorrago, eta, prest, ikusten denez, betiko asmoak muturreraino aitzina eramateko: gizon-emakume abertzaleen bazterketa, euskaltzaleei are zartako haundia goa jo eta bakegintzan mahairik ez. Horiek guztiak Sanzek Parlamentuan errandakoak dira, gobernu-egitaraua azaltzerakoan. Ondotik, fiabardura batzuk gorabehera, eutsi egin dio, harro haizeak hartuta baitaude eta ekin nahi diote esku artetik irratizaten ari zaien afera —euskara bera—, behingoz, konpontzeari. Horrenbertzez, Lizarbek ahalik eta lasterren argitu beharko luke ea berak ere euskararen eskakizuna (izan daitekeen eskaxena eta mendreana) kendu nahi ote duen Administrazio-ko lanpostuak eskuratzekoan. Izan ere, sozialisten idazkariak berak Barañainen abiarazitako helegiteak kale gorrian utziko ditu, azkenean, lau lagun, lanpostuaz legebidez jabetuak ziren arren. Halaber, argitu beharko du D eredua egun debekatuta dagoen tokietara zabaldu nahi duen ala hori XXII. (hogeita bi) menderako gibelatu ote duten, Kordobillako kazetarik bertze mehatxuren bat hartu ondoren. Oraingoz, buru-belarri ari omen dira Castejonon bizitza osoa, xehe-mehe, miazten, horixe izan baita prozesu horretan gertatu zaien ia huts bakarra.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Zangoza:** Nafarroako Jaialdien barnean, Eduardo Laguillo Manoa-k bere azken diskoko kantak aurkeztuko ditu gaur Karmengo auditoriumean, 22:00etatik aitzina.
- **Lizarra:** Gaur, 22:00etan, Jose-txo Goiak eta Aribere Ensembled jazz kontzertua emanen dute San Nicolas karrikan.
- **Zangoza:** Bihar, Karmengo auditoriumean Kubako Camera ta Romeuren kontzertua izanen da, 22:00etan.
- **San Martin Unx:** Kontzertu itzela larunbatean, gauerdian, Leihotikan, Luis Ricardo Borrriquero (Kordoba) eta Alde-mibia taldeen eskutik.
- **Agoltz:** Abuztuaren 10ean, asteartea, gaueko 00:30etan Buitraker taldeak joko du.
- **Burlata:** Black Rose tabernan kontzertua emanen du Marea taldeak abuztuaren 11n.

DANTZALDIAK

- **Mendiagorria:** Iruña taldeak plazan joko du, 21:00etan.
- **Otsagi:** Larratz dantza taldeak Hamaika dantzetako lurra ikuskizuna eskainiko du bihar, 22:30ak aldera, pilotalekuan.

ZINEMA

- **Barañain:** Gaur, ostirala, Ron Underwooden *Mi gran amigo Joe* filma 22:00etan, Lakuko Anfiteatro Naturalean. Euria egiten badu, Sahats ikastetxean eskainiko da filma.
- **Iruña:** Gaur 22:00etan *La vida es bella* filma eskainiko dute San Jose plazan.
- **Erro:** Bihar, gaueko hamarretan, herriko plazan, *Mi gran amigo Joe* izanen da ikusgai.
- **Urzaizki:** Bihar, 22:00etan, *La sombra del faraón* filma herriko pilotalekuan.
- **Berlaim:** Babe, *el cerdito en la ciudad* izanen da ikusgai

bihar, gaueko hamarretan, udaletxeko enparantzan.

LEHIAKETAK

- **Corella:** Nafarroako Joten XII. Lehiaketan izena emateko epea abuztuaren 20an bukatzen da. Izena emateko udale-

ra deitu, 948-780004 telefonora.

- **Iruña:** Aldapako San Fermin bestetarako afixa entregatzeko epea irailaren 3an bukatuko da. Lehiaketaren oinarriak Nabarrieriako Jai Batzordean eskura daitezke, Aldapa 5, edo 948-212526 telefonoan.

BESTELAKOAK

- **Iruña:** Bihar, goizeko hamarretatik bazkalordua arte "Arkakuso onen azokatxo" egingen da Alde Zaharreko San Jose plazan. Bigarren eskuko makina bat traste eta tramankulu egonen da salgai.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



—¡Ay, meu homiño, e qué bonito vas co traxe das romerías!

Atx, senar maitea, zein dotore zoazkidan igandetako soinekoekin!